

Hernaniko udalerria.
Ezaugarriak


Biztanleak: 19.700

Azalera: 40 km²

Eremu urbanoa: 1,5 km²

Kokapena: Donostiatik 5 kilometrora

Eremu industriala



HERNANIKO PRAKTIKA ONAK

2010. urte arte hondakinen udal bilketa-sistema masan egiten zen, hondakinakale-bazterrean zeuden edukiontzietan sartuz. Gaikako bilketarako edukiontzia 2000. urtea baino lehen hasi ziren jartzen Hernanin, baina hala eta guztiz ere, 2009. urtean birziklatzen zena nekez iristen zen % 30era.

Hori dela eta, 2010. urtean hondakinen bilketa-sistema aldatzea erabaki zuten. Edukiontzia kaleetatik kenduko dituzte eta atez ateko gaikako bilketa-zerbitzua jarriko dute martxan. Zerbitzu berri hori 2010eko maiatzean abiarazi zuten. Hilabete gutxiren buruan % 80aren inguruko birziklatze-ehunekoetara iritsiko dira.

Horrekin batera, 2010. urtean, atez ateko gaikako bilketa-sistema berria ezartzeaz gain, udalak autokonpostatzea bultzatuko du sakabanatutako etxebizitzetan, familia bakarrekoetan eta etxebizitza atxikietan. Horretarako, arestian aipatutako herriguneei zuzendutako erakarpen-kanpaina bat jarriko du abian. Sortzen duen materia organikoa konpost bihurtzeko prest dagoen familia bakoitzari konpostagailu bat eskainiko zaio dohainik, gai horren inguruko prestakuntza emango zaio eta, halaber, % 40ko beherapena aplikatuko zaio hondakinen tasan. 2012. urtearen hasieran 691 familia ditugu beren etxeetan autokonpostatzen.

2012. urtearen amaieran egonkortu egingo da autokonpostatzea erabaki duten familien kopurua. Udallerriak hirigintza aldetik dituen ezaugarriak direla eta, ez da aurreikusten kopuru hori areagotuko denik. Nolanahi ere, espazio egokirik ez dutelako konpostatu ezin dezaketen herritarren eskaerak gero eta gehiago dira, eta batez ere, etxean konpostatu ahal izateko baliabideak eskaintzea eskatzen diote Udalari.

Testuinguru horretan, konpostatze-proiektu komunitario edo kolektiboa abiaraziko du Udalak.

Proiektu horri 2013. urteko urtarrilean ekin zitzaion, eta udalerriko lehen konpostatze-gune komunitarioa erdialdean bertan jarri zuten, Alde Zaharrean. Bertan 24 familia hasiko dira konpostatzen.

Lehen konpostatze-gune horren atzetik, beste 10 gune gehiago jarriko dituzte 2013. urtean. Konpostatze-eremua erdialdetik herriaren kanpoaldeko auzoetara zabalduko da, herritarrek eskatu ahala.

2014ko lehen sei hilekoaren barruan beste 10 gune gehiago jarri zituzten, eta uda ondoren, beste 6. Beraz, dagoeneko 26 konpostatze-gune komunitario ditugu udalerrri osoan barrena banatuak.

2015. urtearen amaierarako, berriz, 33 konpostatze-gune genituen.

2016. urtean, beste 10 konpostatze-gune egin dira, eta horrela, 43 gune ditugu guztira.

Gune horietako bakoitzean 22 familia inguruk parte hartzen dute. Bi konpostatze-gunetako konpostatze-etxola handiagoa da eta horietako bakoitzean 35 familia biltzen dira. Azkenekoa herrigunetik 5 kilometrotara dagoen auzo batean jarri genuen (Ereñozun). 35 familia horiek ekoizten duten organikoa tokian bertan konpostatzen da, produktua beste toki batera garraiatu beharrik gabe. Sortzen den organikoa konpostatu egiten da eta lortzen den ongarria, txikitu eta iragazi ondoren, auzoko bizilagunek berek erabiltzen dute beren baratzeetarako eta landareetarako. Gure hondakinen kudeaketa egokiaren adibide bat da. Sortzen dugun guztia berrerabili egiten dugu, tratamendu-planta batera garraiatu beharrik gabe.

Laburbilduz, gaur egun, Hernaniko udalerrian 691 familiak autokonpostatzen dute eta 862 familiak konpost komunitarioan parte hartzen dute (1.553 familien organikoa zirkuitu horretatik atera dugu, kopuru osotik % 25 inguru).

Autokonpostatzearen bidez lortzen den konpost guztia toki hauetan berrerabiltzen da gero: udal lorategietan, udalaren baratze ekologikoetan, udalerriko baratze eta lorategi pribatuetan eta, halaber, balkoi eta terrazetako loreontzietan.

Horretarako, konpostatze-prozesua amaitu ondoren, sortutako konposta atera egiten da, txikitu egiten da eta horren lagin bat laborategi homologatu batean aztertzeraz eramaten dute, horren osagai kimikoak nahiz biologikoak analizatu ditzaten.

Analisiaren emaitzak jaso ondoren, konposta zakuetan sartuko da eta arestian aipatutako erabilera horietarako eskatu duten herritarren artean banatuko da. Udalaren lorezaintza-zerbitzuak ere erabiltzen du erdietsitako konposta.

2013. urtean, proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso zuen prebentzioaren atalean (hondakin gutxiago sortzeagatik).

Proiektu hau aurrera eramateko, Udalak pertsona bat izendatu du horren arduradun, eta pertsona horren gain egongo da proiektuaren fase guztiak kontrolpean edukitzeko arduraz, konpost-guneen kokapenetik hasita, eta halaber, berak jarri beharko du familiekin harremanetan eta berak eskaini beharko die programan parte hartzen duten familiei konpostatze-teknikei buruzko prestakuntza egokia. Herritarrari eskatzen zaion gauza bakarra da organikoa bertan utzi ondoren etxola bakoitzaren aldamenean aurkitzen den egituratzaile kopuru berdinarekin nahasi dezala (erantzukizun partekatua).



Arestian esan dugunez, sistema honen bitartez atez ateko sistemarekin jasotzen dugun organikoaren ia % 25 birziklatzea lortzen dugu. Gainerako % 75aren tratamendua egiteko, konpostatze-planta bat behar dugu.

